

EDITORIALA

Itxuraldaketa

Hauteskunde politikoak hurbiltzen diren sasoitan ohikoa da, eta dagonekoz ez gara harritzen, alderdi ezberdinetako buruzagien ahotan entzutea gizarte politika aurrerakoia garatzeko hartzen dituzten konpromisoak, lau urtetako jardun politikoan ekinbide nagusiak tenore horretara zuzenduko lirakeela konbentzitu nahian edo.

Kudeatzen dituzten gizarterako politika publikoek bestela diote, ordea. Agian beren ekinbidetan kokagune zentrala du gizarte politiken gaiak-asko eta asko dira ebatzen dituzten arategiak- baina eskaintzen dieten norabidea guztiz atzerakoa eta neoliberala da. Gizarte osoaren beharrak asetzeko gobernatzen dutela badiote ere, egia esan, populazio gehiengoaren beharrak geroz eta nabariagoak dira. Bitartean, hazkunde ekonomikoaren garaian irabazi zuten horiek beraiek dira gobernatzaileek burutzen dituzten politiken onuradunak. Eta ez nolana, gainera.

Ekonomiaren moteltzea izanda ere, berriz ere politika fiskalaren gidoia harturik, enpresariei Sozietateen gaineko Zerga gutxitzekotan dira, ogasunen diru-biltze kopurua txikiagotuz; famili sostengurako lege proiektuak ez du aurrerapenik suposatzen egungo egoerarekin alderatuz; osasun arloko arazoak hortxe dira hainbat eta hainbat zerbitzu pribatizatzen doazelarik; zero hiru urte bitarteko haur eskolen eskaintza urria da; gazteentzako etxebizitza politika tamalgarrria da; gizarte zerbitzuen arreta gaizki ordaindutako langileen bizkarraren kontura doa... Politika honen harira, herritarren beharrak handiagoak izanik, tamalez geroz eta zerbitzu gehiago ordaindu behar ditu herritarrak.

Guzti hori gutxi balitz, ekonomi egocoraren kalteak denon artean, elkartasunez, banatu behar omen dugu. Horretarako betiko errezetarekin datozkigu langileoi, gure aldarrikapenak bertan behera utz ditzagula, alegia. Ez gaude horretarako, ordea. Egiten diren politika publiko atzerakoiak salatzen jarraituko dugu eta behar adinako ahaleginak egingo ditugu agerian uzten gure politikarrien benetako politikak. Hauteskundetarako beste itxura azaldu nahi badute ere.

Nazio Kontseiluak egoera politikoaren inguruko dokumentua aztertu du urriaren 23an Ainhize-Monjolosen egindako bileran

INDARRAK BILDU BURUJABETZA IRABAZTEKO

ELAk egoera politikoaren hausnarketa jasotzen duen dokumentua aurkeztu du urriaren 23an Ainhize-Monjolosen egindako Nazio Kontseiluan. Irailean hamar urte bete ziren Lizarra-Garaziko hitzarmena adostu zenetik, eta sindikatuak urtemuga hori baliatu nahi du bere hausnarketa gaurkotu eta plazaratzeko.

Lizarra-Garaziko hitzarmena sinatu zenetik hamar urte igaro diren arren, bide horrek atzera bueltarik ez duela nabarmentzen du Adolfo Muñoz idazkari-nagusiaren albokoak. "Lizarra-Garazik ez du alternatibarik. Behar beharrezkoa ikusten dugu autodeterminazioa defendatzen dugun eragileen arteko minimoen akordioa. Egia da egun hainbat oztopo eta zailtasun daudela, baina ezinbestekoa da indar soberanistek blokeo egoera gaingitu ahal izateko ahalegina egitea".

Muñozek argi du soberaniaren aldeko borroka zibila izan behar duela ezinbestean, borroka armatuak ez duela lekurik. Gainera, prozesu horretan gizartearen gehiengoak parte hartu beharko lukeela dio, ezin duela izan eliteen prozesu bat. "Ez da posible posizio soberanista bat defendatzea eta era berean Estatuarekin akordio bat defendatzea. Estatuak esfortzu ugari egiten ditu gauzak argi uzteko, agerikoa da zein den bere jarrera. Argi gelditu da ere Estatutismoaren krisia, ez du balio ikuspuntu soberanista batetik, beti ere Estatutua Estatuaren menpe gelditzen delako. Blokeo egoeratik ateratzeko prozesuak Estatuarekiko aurrez aurre jartzea exijitzen du. Borroka hori zibila behar du izan, borroka armatuak ez du tokirik".

Helburua mugimendu abertzalearen indar metaketa dela nabarmentzen du dokumentuak. Prozesu horretan parte hartzeko borondatea duten erakunde guztiak egon beharko luke. "Soberaniaren aldeko prozesua konpromisoa da, konpartitutako lan plurala. Gizartean hori lortzeko oinarria egon bada, eta gainera bada go lehenagoko esperientzia bat. Militan-



tzia badago, eta mugimendu abertzaleak bere helburu nazional eta politikoak defendatzeko zilegitasun osoa du. ELAk gogor egingo du lan soberaniaren aldeko prozesuak ahalik eta ibilbide handiena izan dezan".

Sindikatu abertzalea izanik, nazio eraikuntza eta neoliberalismoa ez direla bateragarriak dio Muñozek. "ELAk prozesu soberanista sendotzeko beharrezkoak ikusten dituen lehentasun sozial eta sindikalak jarriko ditu mahai-gainean. ELAk prozesuari egin diezaiokien ekarpenik handiena lan mundu eta gizarte eredu justu eta bidezkoago bat lortzeko egiten duen lana eta borroka da. Prozesu soberanista batek ez du lortuko behar adinako babesik langile jendearen beharrak asetzen eta betetzen ez baditu".

El documento íntegro se puede conseguir en la página web de ELA, tanto en euskera como en castellano: <http://www.ela-sindikatu.org>

ELA renueva el compromiso de promocionar el euskera en la relaciones laborales

TRABAJAR Y VIVIR EN EUSKERA

La resolución que se presentará al Congreso Confederal renueva la adhesión de ELA al euskera, así como el compromiso de promocionarlo en las relaciones laborales. Un compromiso que en los próximos cuatro años se materializará en los siguientes objetivos:

■ Sensibilizar y motivar, empezando por nuestra afiliación y representantes, para la extensión del euskera

■ Impulsar en las empresas planes y medidas de normalización.

■ Introducir cláusulas en la negociación colectiva para estimular su uso.

■ Continuar el desarrollo del Plan interno de normalización de ELA, para que llegue a ser lengua vehicular de servicio y trabajo.

■ Participar en iniciativas ciudadanas y de ámbito laboral que se organicen a favor del euskera, integrando la militancia euskaltzale en nuestra militancia sindical.

■ En Navarra e Iparralde exigir la oficialidad plena del euskera, como deci-

sión política fundamental para avanzar en la normalización.

Según destaca Leire Txakartegi, responsable de servicios jurídicos y euskera, en el próximo Congreso Confederal ELA quiere proclamar su voluntad de trabajar y vivir en euskera. "Tenemos derecho a ello y solicitamos asimismo un compromiso político auténtico para poder hacerlo efectivo. ELA, hace suyo, por tanto, el papel que le corresponde en la tarea de normalización y euskaldunización del mundo del trabajo. En el trabajo, también, en euskera; en ELA, también, en euskera!"

EN EL DÉCIMO ANIVERSARIO DE LIZARRA

El Comité Nacional quiere actualizar su reflexión con ocasión del aniversario de un acontecimiento fundamental de nuestra historia política reciente como fue la declaración de Lizarra-Garazi. Quiere hacer memoria del contex-

to y las condiciones que la hicieron posible; rescatar su contenido explícito e implícito; recordar los aciertos y desaciertos de su gestión y actualizar aquello que de válido sigue teniendo ahora. Éste es un extracto del documento.



DECLARACIÓN DE LIZARRA-GARAZI Y EL CONSIGUIENTE PERÍODO

La declaración de Lizarra-Garazi de 12 septiembre de 1998, suscrita por las fuerzas favorables al derecho de autodeterminación, reconoce la existencia de un conflicto histórico de naturaleza política entre Euskal Herria y los estados español y francés. Sus firmantes se comprometen a trabajar por la paz. Apuestan por el diálogo y la negociación sin exclusiones para obtenerla. Sitúan la clave de la resolución del conflicto en el compromiso de todos los firmantes en respetar la voluntad de pueblo vasco expresada de modo democrático y pacífico.

LIZARRA-GARAZI NO TIENE ALTERNATIVA

ELA no puede obviar el contexto complejo y doloroso, tanto para el movimiento abertzale como para el conjunto de la sociedad vasca, en que hacemos esta reflexión. Una parte de la sociedad está excluida de la participación política normalizada; la amenaza, incluso de muerte, y la extorsión pende sobre muchos ciudadanos y ciudadanas; son miles las personas privadas de

libertad y otros derechos fundamentales; muchas las refugiadas; también las huidas, por la represión o la extorsión; los estados han desvirtuado al máximo las garantías democráticas en pos de su propia afirmación y eliminación de la disidencia; las propuestas políticas del mundo abertzale no se hacen en clave de acumulación de fuerzas, de colaboración... El cansancio de tantos años hace mella en el conjunto de la sociedad y lleva a la desilusión a muchas personas que darían lo mejor de sí mismas en dinámicas militantes.

Sin embargo, son miles entre nosotros y nosotras los que siguen trabajando denodadamente en pos de un escenario de paz, progreso y libertad para Euskal Herria. A pesar de las muchas dificultades, ELA cree que en todos ellos, además, han madurado en el tiempo y dan fruto, los criterios fundamentales que deben inspirar y ordenar un compromiso colectivo, unitario, a favor de ese futuro nacional. Criterios y principios que tienen que ver con el carácter civil, popular y participativo, democrático, pacífico, territorialmente integral... de un proceso de construcción nacional a favor de la soberanía.

Las fuerzas abertzales de la sociedad organizada no podemos por ello defraudar la esperanza de tantos y debemos realizar un serio esfuerzo por enriquecer y profundizar las distintas formas de vivir nuestra identidad colectiva y por incorporar a los distintos sectores de la sociedad vasca a la tarea común de construcción de un futuro para nuestro pueblo. Debemos superar la actual situación de bloqueo y desilusión con visión de país.

ELA cree que la renuncia definitiva al recurso armado por parte de ETA es una aportación previa e imprescindible, aunque no sea suficiente, para crear las condiciones subjetivas y objetivas que el movimiento abertzale necesita para la definición de un pacto de contenidos y proceso en pos de objetivos nacionales compartidos. Ese recurso debe dejar de ser un elemento condicionante para la visión de la realidad, los ritmos y el sentido del proceso de que quiera dotarse el movimiento abertzale civil.

ELA cree que en ese pacto y proceso deben participar aquellas organizaciones que lo deseen, que estén dispuestas, y que no debe condicionarse la participación de unos al compromiso de otros. El horizonte es la acumulación de fuerzas de la totalidad del movi-

miento abertzale, así como el compromiso de las instituciones que algunas de sus fuerzas puedan gobernar en el futuro. Ese horizonte del *nuevo Lizarra-Garazi* no tiene alternativa, aunque en su arranque sólo estén, como decimos, los que quieran y puedan trabajar con un acuerdo de mínimos.

Lo definitivo es que la orientación conjunta, el objetivo estratégico, vaya en una misma dirección como resultado de una dialéctica con la suficiente fuerza y dinamismo para ir ampliando la base política y social. En esa tarea, ELA quiere situarse en el núcleo más decidido de trabajo para que este proceso soberanista tenga el mayor recorrido posible.

En todo caso, hay que subrayar que el proceso soberanista es compromiso, trabajo plural compartido, ir quemando etapas por aproximaciones sucesivas, corrigiendo y completando las tareas y aprovechando las oportunidades. Hay base social suficiente y hay experiencia acumulada; hay militancia, y el movimiento abertzale tiene toda la legitimidad para defender y luchar por nuestras aspiraciones nacionales y políticas. ELA entiende que devolver a la sociedad el protagonismo es una condición fundamental para el éxito de un proceso soberanista. Al afirmar ese protagonismo social pensamos en dos dimensiones fundamentales: por un lado, la lucha por un modelo de sociedad más justo y solidario para la mayoría de la sociedad, y por otro, la participación activa de la gente en pos de objetivos nacionales.

En el marco de esta reflexión política que el Consejo Nacional realiza el 23 de octubre en la sede de Laborantza Ganbara en Ainhize, ELA quiere subrayar el carácter ejemplar, para un proceso soberanista, de esa iniciativa, coherente con el espíritu y la lógica de Lizarra-Garazi. Se trata de una iniciativa que responde a una demanda social sentida; útil a sus asociados; con una vocación territorial; asumida por la totalidad del movimiento abertzale; que combina profesionalidad y rigor con militancia y sostén popular; que vincula a la gente al margen de su ideología y confesión nacional... No es extraño que esas virtualidades y potencialidades no hayan pasado desapercibidas para los aparatos del estado francés y todo ello explica los procesos judiciales y boicots que actualmente padece.

Mirando hacia el futuro, el eventual acuerdo de fuerzas políticas y sociales tiene que superar algunas cuestiones del precedente de Lizarra-Garazi. Una de esas cuestiones se refiere al papel que pueden y deben jugar cada una de las fuerzas integrantes del acuerdo. Allí, quienes gestaron y gestionaron el acuerdo fueron las dos familias políticas mayoritarias, convirtiendo básicamente al resto de organizaciones en adherentes o acompañantes.

El modelo social y sindical no tuvo ninguna presencia en el acuerdo y quizá no podía ser de otra manera. Pero ELA, en una nueva fase, no se limitará esas tareas de acompañamiento y se marcará para sí misma aquellas prioridades sociales y sindicales que entienda básicas también para consolidar el proceso soberanista, de tal manera que éste gane en extensión social. ELA cree por ello que su lucha por un mundo del trabajo y un modelo social justo y solidario es su aportación específica y más genuina también al proceso soberanista. Construir una nación es ali-

NUESTRA POSICIÓN

mentar un proyecto colectivo, integrador, solidario... valores todos ellos contrarios a la doctrina neoliberal que inspira las políticas públicas y empresariales dominantes en nuestro país. Estas políticas nos llevan a tener graves carencias sociales en materias como la vivienda, los servicios sociales, la sanidad o la educación.

Difícilmente un proceso soberanista concitará las adhesiones sociales necesarias entre las clases populares si sus necesidades laborales y sociales están fuera de la agenda de las fuerzas soberanistas o si se las maltrata desde los ámbitos institucionales gobernados por ellas o algunas de ellas: neoliberalismo y soberanismo son, en este sentido, incompatibles.

Como organización sindical abertzale tenemos tres objetivos estratégicos:

mejorar las condiciones de trabajo de la gente, dando la máxima centralidad a la negociación colectiva; ser activos en la defensa de un modelo de sociedad más justo, y contribuir a la emancipación nacional. Son tres objetivos que caracterizan el perfil de nuestra militancia que constituyen parte de un mismo compromiso. Ser sindicalistas es nuestro modo de ser abertzales.

Hasta alcanzar un escenario de normalización política ELA también va a seguir afianzando una posición activa propia contra la continuidad de ETA y sus acciones armadas así como contra las políticas antiterroristas que violan derechos humanos individuales y colectivos (libertad de expresión, presos y presas, participación política...). Es necesario y posible denunciar la vía armada al mismo tiempo que negarse

radicalmente a dar cobertura al pacto antiterrorista que ha reducido el estado de derecho al imperio de su ley, acabando con la separación de poderes y las garantías en materia de libertades políticas y derechos fundamentales. Se trata este de un espacio que nos gustaría no ocupar en solitario, aunque sea hoy por hoy así. ELA considera fundamental no dejarse atrapar por una estrategia que aprovecha las acciones de ETA para imponernos una agenda ajena a la nuestra, como es la de renunciar al cambio político.

ELA —consciente de las contradicciones presentes— considera que el movimiento sindical abertzale, que tan activamente contribuyó a hacer posible el escenario abierto por la declaración de Lizarra-Garazi, debería realizar un esfuerzo ejemplar en la dirección que se apunta, haciendo posible un sindicalismo reivindicativo que pueda vincular el proceso nacional con las aspiraciones de la clase trabajadora.

ELAk XII. Kongresuan euskararen inguruan bozkatuko duen ebazpena

LANEAN ERE EUSKARAZ



Euskara lan munduan normalizatzearen alde aritzeko konpromisoa X. Kongresuan adierazi genuen, eta XI.ean berretsi. Abiapuntu bezala, sindikatu barrutik hasi ginen. Euskararen arautegia eta urteroko planak onartzea erabaki garrantzitsua izan zen, euskara antolakuntza ikuspegi batetik planifikatzea ekarri zuelako.

Urte hauetan ibilbide bat egin dugu, aurrerapausoak izan dira, baina asko daukagu hobetzeko. Hala ere, ebazpen honetan ELAren barne egoeratik harago joan nahi dugu, eta lan arloan daukagun hizkuntza egoera aztertu.

Azkenaldian frantses eta espainiar estatuetan eztabaida linguistiko-politiko puri purian dago. Frantzia, beste behin, frantsesa ez den beste hizkuntzei ez zaie aitortu izaera ofizialik. Espainian, gaztelaniaren "babes eza" aitzakitzat hartuz gainontzeko hizkuntzak auzitan jartzeko kanpaina bortitza hasi dute hedabideetan.

Bitartean, Euskal Herrian inkesta soziolinguistikoek kezkatu egiten gaituzte. Euskararen erabilerak behera egin du, gazteen artean batez ere. Azken urteetan izandako ezagutza tasaren igoerak eta hezkuntzan lortutako aurrerapenek ez dute eragin zuzenik izan erabileran. Gure ustez, horrek harreman zuzena du lan munduan eta arlo sozio-ekonomikoan euskarak duen egoera diglosikoarekin. Lan munduan gaur egun, geroz eta langile gehiago dira euskaldunak, baina lan harremanak euskalduntzeko hori ez da nahikoa. Normalizazioaz ari garenean, euskararen erabilera bermatzeko baldintza egokiak sortzeaz ari gara, eta euskara era honetara aurrerakusten duten lan zentroak oso urriak dira.

ELAn argi daukagu lan munduaren euskalduntzerik gabe ez dagoela euskararen normalizaziorik, ez eta benetako ofizialtasunik. Normalizazioaren erronka nagusia eta ezinbestekoa lan harremanetan dago.

Nafarroan eta Iparraldean lan munduaz haratago egin beharko genuke azterketa. Lurralde hauetan euskara ez da ofiziala, ez dauka legearen babesik (Nafarroako zati batean izan ezik). Ofizialtasun eza arazo politiko larria da. Beraz, herrialde hauetan euskararen ofizialtasun osoa eskatzea izan behar da lehenengo aldarrikapen politikoa, euskarak esparru guztietan, lan munduan barne, garatzeko aukera izan dezan.

Euskal Autonomi Erkidegoan, aldiz, euskaraz lan egitea eskubidea dela gogoratu behar dugu. Lana eta jardueraren sindikala euskaraz garatzea legeak babesten duen hizkuntza eskubidea da, botere publikoek babestu beharrekoa, hain zuzen. Errealitatea, zoritxarrez, oso bestelakoa da.

Egoera honen aurrean, euskara babesteko eta hedatzeko estrategia baten beharra azpimarratzen dugu, jendartean eta lan munduan dituen gabezia estrukturalak gainditze aldera. Helburua euskarari hizkuntza ofizial bezala dagokion tokia ematea litzateke, progresiboki eta bakoitzaren borondatean oinarrituta, baina hizkuntza eskubideen defentsa irmoa eginez. Hizkuntza politikaren emaitzen inguruan eztabaida zabaldu behar dugu eta euskararen garapen osoa nahi dugunon artean adostasun politiko-sozialak bilatu.

Azkenaldian, euskararen inguruan "adostasun zabalak" alde ari dira eragile batzuk. Mantendu beharreko ondare

kultural gisa ikusten dute euskara, eta ondare horren aldeko aldarrikapen hutsalak egiten dituzte, baina euskaldunok euskaraz bizitzeko nolabaiteko neurri zehatzak proposatzen direnean, erdaldunak diskriminatzen direla diote. Diskurtso horren atzean egungo egoera mantentzearen aldeko apostua besterik ez dago, eta hori agerian utzi behar da.

Adostasunaren diskurtsoa politikoki zuzena da baina praktikan euskaldunon hizkuntza eskubideak mugatzen ditu. Hezkuntza arloan zabalik dagoen eredu linguistikoaren eztabaida horren adibide da. Hain garrantzitsuaren aurrean, Jaurilaritzak ez dauka borondate politiko nahikorik proposamen landu bat egin eta aurrera ateratzeko.

Esparru sozio-ekonomikoan ere, lehenetsunak finkatu eta eman beharreko urratsak markatu behar ditugu. Horretarako beharrezkoa da Eusko Jaurilaritzaren ekimen politiko ausartagoa. Bultzada politiko hau lan munduko protagonista guztion parte hartzearekin osatu beharko litzateke, estrategia eta plan guztiak norabide bakarrean zuzenduz, eta beti ere dinamika osagarriak eta ez kontrajarriak edo paraleloak sortuz.

Euskaldunon hizkuntza eskubideen alde administrazioa bera aintzindaria izan beharko litzateke eskaintzen dituen zerbitzu publikoetan. Tamalez, azken urteetan emandako urratsak ez dira nahikoak bide honetan. Benetako ofizialtasunera hurbiltzeko normalizazio plan eraginkorragoak eskatzen ditugu sektore publikoan.

Arlo pribatuari dagokionez, enpresari, beti ere kalkulu ekonomikoari lehenetsuna emanez, ez dute ikusten euskara lehian aritzeko abantaila bezala, salbuespenak salbuespen. Produktua edo zerbitzua euskaraz ematea ez dute sentitzen balio erantsi edo kalitatea areagotzen duen plus gisa, eta gehiengotan, ez dute normalizazio planik bultzatzeko interesik. Enpresaren jardueraren euskaraz garatzea inbertsio errentagarri

bihurtzen duen behar soziala sortzen ez den bitartean, zaila izango da gai honetan aurrera egitea.

Zeregin honetan ere Euskal Autonomi Erkidegoko gobernuari paper aktibagoa eskatzen diogu. Hasteko, Jaurilaritza beraren jardueran euskarari zehar lerroaren izaera aitortzea ezinbestekoa da, hau da, euskara gai tranbertsala izatea. Ondorioz, normalizazio planak eta neurriak enpresetan bultzatzerakoan, Kultura sailaz gain, Lan eta Industri sailak ere inplikatu beharko lirateke.

Gainera, erabiltzaile eta kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak babesteko neurriak hartzea beharrezkoa da. Onartu berri den araudian (123/2008 Dekretua, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzkoa) gai honetan jauzi bat emateko aukera galdu da. Izan ere, dekretua urrats bat den arren, oso aplikazio mugatua du eta gainera, jasotzen diren eginbeharrak betearazteko ez da aurrerakosten neurri eraginkorrik.

Administrazioa eta enpresariak aipatu ditugu, baina sindikatuok ere badugu gai honetan ardurarik. Eta, ELAk, sindikatu nagusi bezala, erantzunkizun garrantzitsua du lan munduaren euskalduntzean. Gure lanaren balantzea eginez, euskararen normalizazioan egin duguna baino gehiago egin dezakegula aitortu beharrean gaude.

Ebazpen honen bidez ELAn euskararekiko dugun atxikimendua gogoratu nahi dugu, eta lan munduan euskara txertatzeko konpromisoa indartu. Badugu zer eginik hurrengo lau urteetan:


- Gure afiliatu eta ordezkariengandik hasita, euskararen hedapenaren aldeko sensibilizazio eta motibazio lana.
- Enpresetan normalizazio planen eta neurrien alde aritu.
- Negoziazio kolektiboan euskararen erabilpenaren aldeko klausulak bultzatu.
- ELA barruko normalizazio plana garatzen joan, euskara ELAn zerbitzu eta lan hizkuntza osoa izan dadin.
- Lan munduan eta jendartean euskararen alde burutzen diren ekimenetan parte hartu, militantzia sindikala eta euskararen aldekoa uztartuz.
- Nafarroan eta Iparraldean euskararen ofizialtasun osoa exijitu, normalizazioan aurrera egiteko funtsezko erabaki politiko bezala.

Azkenean, XII. Kongresu honetan egin nahi dugun ekarpena eta aldarrikapena ondorengoa da: euskaraz lan egin eta bizi nahi dugu, euskaraz lan egin eta bizitzeko eskubidea dugu eta eskubide hauek gauzatzeko benetako konpromiso politikoa eskatzen dugu. ELA ere, dagokion papera onartuz, lan mundua euskalduntzearen alde aritzeko prest dago! Lanean ere euskaraz, ELAn ere euskaraz!

No habrá normalización ni verdadera oficialidad del euskera mientras no haya una euskaldunización del mundo del trabajo. El reto más grande e ineludible de la normalización está en las relaciones laborales.

Iñigo Zubeldia, responsable de Zerbitzuak en Oarsoaldea, exige que a la plantilla de Sabeco en Rentería se le aplique el convenio de Gipuzkoa

HUELGA EN SABECO



El 13 de octubre la gran mayoría de la plantilla de los supermercados Sabeco de Rentería inició una huelga indefinida para exigir que se les aplique el convenio de alimentación de Gipuzkoa, que supone un incremento salarial del 27% sobre el convenio estatal.

-¿Cuál es la situación laboral en la empresa?

-En Sabeco de Rentería, desde hace más de tres años se aplica el convenio colectivo de empresa estatal, que recoge un salario medio de 730 euros al mes con las pagas incluidas, más un sin fin de condiciones laborales que hacen de nuestro puesto de trabajo el peor pagado del sector en Rentería.

Durante varios meses venimos protagonizando junto con LAB movilizaciones y paros parciales para exigir que se nos aplique el convenio de alimentación de Gipuzkoa, como en el resto de los comercios de Rentería, lo que supondría cobrar un 27% más.

Esta semana hemos iniciado una huelga indefinida que está siendo secundada por la plantilla y en consecuencia Sabeco esta viviendo su primera huelga indefinida desde que el grupo Auchan (propietaria de Sabeco) se estableció en el Estado Español.

No hay que olvidar que Sabeco no es propietaria del Supermercado, lo está explotando en régimen de concesión. La empresa propietaria del supermercado está participada por el Ayuntamiento de Rentería y la constructora Murias. Por ello tenemos muy claro que la constructora y el ayuntamiento son parte de la solución del conflicto.

-En estas semanas de movilizaciones previas, ¿ha habido alguna propuesta por parte de la multinacional Sabeco?

-En Bizkaia Sabeco aplica el convenio de alimentación de ese territorio y en Gipuzkoa se niega incluso, a negociar. En julio hicimos tres días de huelga que fueron todo un ejemplo de solidaridad y dignidad. La huelga fue todo un éxito, pero nadie nos ha llamado para negociar; solo nos llaman para amenazarnos.

Hemos respetado todas las leyes, plazos y procedimientos para iniciar esta negociación. Hemos propuesto decenas de fórmulas de negociación a la empresa. A Sabeco no le vale nada; para ellos esta situación solo puede terminar con nuestra rendición o el cierre de la tienda.

La huelga va a seguir hasta que se alcance un acuerdo. Este salario de miseria hace que ninguna trabajadora tenga cubiertas sus necesidades básicas; no se puede llegar a final de mes con este salario; no se puede acceder ni a una vivienda de protección oficial; no podemos acudir a un banco o caja para que se nos de un préstamo hipotecario. Solo podemos tener una vida normalizada si tenemos un segundo sueldo de nuestras parejas o con la ayuda de nuestros padres o familiares.

Errenteriako Sabecoko langileek jasotzen duten soldatak ez du balio bizitza duin bat izateko

Labur Breves

● Enpresek zerga gutxiago ordaintzen dute

ELAko azterketa bulegoko arduradun Mikel Novalek salatu egin du Eusko Jaurlaritzak eta EAeko ogasunek Ondarearen gaineko Zerga kentzeko adierazi duten asmoa.

Horrela, urtean 180 milioi euro gutxiago bilduko dira zergatan (etxebizitzara bideratzen den gastu osoa adina), eta 1,5 milioi eurotik gorako ondarea aitortzen dutenei urtean 20.000 euroko oparia egingo diete. "Gastu soziala gehitu ordez dirua ematen zaie

gehien daukatenei. Honek ere argi adierazten du erakundeak norentzat ari diren lanean".

Mikel Novalek nabarmentzen duenez, "aurten Sozietateen gaineko Zergatik diru gutxiago biltzen ari bada arrazoia ez da enpresak gutxiago irabazten dutelako, iaz erabaki zen jaitziera handiagatik baizik. Etekinak hazi egin dira, baina enpresek diru gutxiago ordaintzen dute".

● 'Nekeak hil egiten du' kanpaina abian

ELAko ordezkariak mobilizazioa egin zuten urriaren 13an Biriatioun garraioaren arloan ematen diren lanaldi luzeen aurka kexatzeko. Gidarien segurtasuna bermatuko lukeen gehieneko lanordak ezartzea eskatu zuten Nazioarte-

ko Garraiolarien Federazioaren eskutik antolatutako ekintza honen bitartez.

Nazioarteko Garraiolarien Federaziok *Nekeak hil egiten du* kanpaina jarri du abian. Kanpainaren helburua patronalari zein gobernuei garraiolari batentzat 10 edo 12 orduz jarraian lan egitea dituen ondorioetatik ohartaraztea da. Gainera, garraiolarien lan baldintzen hobekuntza eskatzen da.

● Balzak ez du ELArenkin bildu nahi

ETAK Ondarruko ertzain-etxearen aurka eginiko atentatuaren ondoren ELAK premiazko bilera eskatu zion Barne sailburu Javier Balzari, segurtasun neurriei buruz hitz egiteko. Balzak ez dio inolako erantzunik eman ELAren eskaerari, ertzainen segurtasuna mes-

prextatuz. ELAK ertzainen segurtasuna bermatuko duten neurriak abian jartzea eskatzen du, egun ezarrita dagoen lan sistema bertan behera utziz; plan horrek soilik barne sailaren kudeaketa negargarria justifikatzeko balio du, ez segurtasuna bermatzeko.

● Gruas Jaso anuncia 32 despidos

La empresa Jaso Idiazabal Gruas de Construcción ha anunciado el despido de 32 trabajadores y trabajadoras a través de un ERE. El comité de empresa denuncia que "Jaso ha sido una de las empresas que ha tenido beneficios enormes los últimos años, y ahora se quiere sumar al carro de la socialización de las pérdidas a las primeras de cambio con despidos masivos".

www.ela-sindikatua.org

ELA **a**stekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org

Franqueo concertado
nº 08/207